



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK, MIRUETAKO DINAMITXIE
SOKATIRA KIROL KLUBAREN IZENEAN ETA ORDEZKARITZAN,
EUSKADIKO HERRI KIROLETAKO FEDERAZIOAREN DIZIPLINA EPAILE
BAKARRAREN 2017KO MARTXOAREN 8KO EBAZPENAREN KONTRA
JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.**

Espediente-zenbakia: 26/2017

AURREKARIAK

Lehena.- 2017ko otsailaren 4an Erandion egindako sokatira-proban (goma gaineko Euskadiko gizonezkoen txapelketako finala, 640 kg-ko kategorian) hautemandako irregulartasun batzuk direla eta –hiru talde parte-hartzaile (Beti Gazte, Murueta eta Zuraide) izango lirateke horien erantzuleak–, proba bertan behera uztea erabaki zen.

Gero, klub horiei diziplina-espedientea ireki zitzaion, Euskadiko Herri Kiroletako Federazioaren Diziplina Epaile Bakarraren 2017ko otsailaren 9ko probidentzia bidez.

Espediente hori izapidetu ostean, hari amaiera eman zitzaion aipatutako federazioaren Diziplina Epaile Bakarraren 2017ko martxoaren 8ko Ebazpen bidez, eta klub horiei «*edozein sokatira-probatan parte hartzeko lizentzia hilabete eta erdiz eteteko zigorra*» ezartzea erabaki zen. Gainera, hiru klubentzat partaidetza kautelaz eten zen goma gaineko Euskadiko sokatira-txapelketaren finalean 640 kg-ko kategorian; aurrekoa eten ostean, proba hori berriz egin zen Laukizko otsailaren 12ko irregulartasunetan nahastuta ez zeuden gainerako taldeekin.



Bigarrena.- Aurreko ebazpenaren kontra, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, Muruetako Dinamitxie Sokatira Kirol Klubaren (aurrerantzean, Murueta) izenean eta ordezkari gisa, errekurtsua aurkeztu zuen 2017ko martxoaren 27an.

Hirugarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidetzea erabaki zuen, eta, horrela, kasuan kasuko espedientea eskatu zion Euskadiko Herri Kiroletako Federazioari. Horrez gain, alegazioak egiteko eta egokitzat jotzen zituen eginbideak aurkezteko aukera eman zion. 2017ko apirilaren 24an, federazio horrek bidalitzat jo zuen espedientea, baita Diziplina Epaille Bakarrak bidalitako txostena ere.

Era berean, zigortu ez ziren eta txapelketa berean parte hartu zuten klubei (Gaztedi, Ibarra eta Sokarri) alegazioak aurkezteko aukera eman zitzaien, baina ez da horrelako dokumenturik jaso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsu hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.a) artikulua, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua.

Bigarrena.- Eztabaida klub errekurtsogileari ezarritako zigorrean oinarritzen da, baita zigorraren arrazoietan eta motibazioan ere.



Zehatzeko ebazpenean jasotzen den moduan, proba («tiraketa») etetea erabaki zen, «*Beti Gazte, Murueta eta Zuraideko tiratzaileek erabilitako zapatilek baimendu gabeko produktu itsaskor bat zutelako*».

Txapelketako epaileek hautemandako eta kirol-espezialitate horren araudiak debekatutako gertakari horrek arestian aipatutako zigorra eragin du, Herri Kirolen Euskal Federazioaren Diziiplina Araudiak 11.2.a) artikuluan xedatzen duenari jarraiki, bertan oso larritzat jotzen baita «*proba edo lehiaketarako erabilitako esparru, instalazio edo materialen inguruko arauak edo arau teknikoak ez betetzea, bere erantzukizuna izango litzatekeenean eta hau ez ospatzeak neurketa edo lehiaketaren etenaldia eragiten duenean edota kirolariak, epaile jaun/andreak nahiz ikusleak arriskuan jartzen dituenean*».

Hirugarrena.- Alderdi errekurtsogilearean ustez, ezarritako zehapena ez da egokia, eta hura baliogabetu egin behar da honako arrazoi hauek direla eta:

- Txapelketako epaileek gertakarien bertsioa aldatu dute zehapen-espeditentean jasotako adierazpenetan, eta bertan jasotakoa ez dator bat probaren aktan berretsi zutenarekin.
- Proba eman zuten telebistako esatariek eta epaile batek –egindako elkarrizketa batean– argi eta garbi frogatu dute tiraketarako erabili zen gomak arazo- edo akats-motaren bat zuela eta, seguruenik, hura lehiakideen zapatiletara itsatsiko zela.
- Ez da behar bezala frogatu Murueta taldeko kideek zapatila trukatuekin lehiatu zutenik: lehenengo azterketan (lehen proban), epaileek ez zuten irregulartasunik hauteman eta, gero (bigarren proban), kirolari batzuegan hauteman zutenean, horiek oinetakoak aldatu zituzten proba hasi aurretik.



- Zehatzeko ebazpenean mantendutako bertsioa egia izanda ere, jokaera ez dago modu egokian tipifikatuta, diziplina-araubideak ez baitu jasotzen *«txapelketa batean arauz kontrako oinetakoak erabiltzen saiatzea, baina hala ez egitea»*; hori dela-eta, *«txapelketan materiala erabili izanaren egintza»* zigortu behar da, eta *«hori egiten saiatu izana»*.
- Azkenik, aztertzen ari garen errekurtsioan zera alegatzen da, *«zapatilen erabilera ez dela klubaren erantzukizuna, tiratzaileena baizik»* (horregatik, ezin da erregelamenduko 12. artikulua erabili), baita *«legez kontrako zapatilen erabilera txapelketa eteteko arrazoia ez dela ere»*.

Laugarrena.- Errekurtsogileak egindako hausnarketen harira, federazioko Diziplina Epaille Bakarrak zera adierazi du, kirol-oinetakoak faltsutze hutsa «per se» zehapen-arrazoia dela, horiek txapelketan erabili ziren ala ez baloratzen sartu beharrik izan gabe. Faltsutze hori ez zuen lurzoruaren ustezko kutsadurak eragin; dena den, hori ez da behar bezala frogatu. Arbitroek gertakari horiek berretsi dituzte espedientea izapidetzeko orduan.

Bosgarrena.- Errekurtsogilearen idazkian jasotako alegazioak eta federazioak bere txostenean adierazitako hausnarketak azertu ostean, kasu honetan, errekurtsioa gaitzetsi egin behar dela uste dugu, jarraian azalduko ditugun arrazoiak direla eta.

Seigarrena.- Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 50.2. artikuluan jasotzen den moduan, kirol-epaileek hartutako erabakiak *«zuzentzat joko dira, eta epaileen aktak lehiaketak behar bezala garatzeko beharrezko dokumentuak izango dira»*.



Administrazio-zuzenbidean, balorazio- edo hautaketa-organoek diskrezionaltasun teknikoak deiturikoa dute. Horrenbestez, baloraziorako «ad hoc» sortutako organoaren irizpidea ezin da beste batekin ordezkatu, hura errekurtsogileak izan dezakeen iritziz subjektiboan oinarrituta badago eta, haren eskumenekoa den arlo batean, erabakian eragin dezakeen akatsen bat dagoela eta, beraz, egiazkotasun-presuntzioa frogatzen ez denean, ezagutza espezializatu eta ziurtasun- edo arrazoizkotasun-presuntzioan oinarrituz.

Diskrezionaltasun teknikoak, jurisprudentziak jasotzen duen moduan, «*jarduera ebaluatzaile hori kontrolatzeko aukerak murrizten ditu, eta oinarrizko bi gertakari hauek osatuko dute, funtsean: araututako elementuak ez bete izana – horiek daudenean– eta akats nabarmena; (...) Horrenbestez, desadostasuna... arbitrariotasuna nabarmena denean bakarrik gerta daiteke... Horrela, bada, erabakia... beti onartu beharko da diskrezionaltasunaren erabilera haztatua eta orekatua egiten denean.*» (Auzitegi Gorenaren 2000ko uztailaren 14ko sententzia).

Arrazoi horiek kirol arloko arbitroen edo epaimahaien eremuan aplikatuz gero, nolabaiteko paralelismoa ezar dezakegu. Printzipioz, horien balorazioa ezin da, besterik gabe, hirugarrenek izan dezaketen iritziarekin ordeztu, baina balorazio hori araututako elementuetara egokitzen dela egiaztatuko duen arbitroaren eginkizuna kontrola daiteke eta kontrolatu behar da, horiek daudenean (eta hala da kasu honetan, lehiaketa horrek alde aurretiko arau batzuk bete behar baititu), baita akats edo arbitrariotasunik gertatu ez dela ere.

Kirol arloko arbitroek edo epaimahaiak hartutako erabakien igartze-presuntzioa «*iuris tantum*» izango litzateke, hau da, kontrako frogak onartzen ditu. Eta, proba horretatik, arauak bete ez direla, akats bat gertatu dela edo arbitrariotasuna ondorioztatzen bada, lehiaketako epaimahaiaren eginkizuna



berrikusi egin ahal izango da, hala badagokio. Arbitroen jarduketa egokia asaldatzen duen elementurik ez badago, epaimahaiaren erabakia nagusituko da lehiakideek edo horien ordezkariak izan dezaketen iritzia gainetik, hura ez baita teknikoa eta inpartziala.

Zazpigarrena.- Errekurtsogileak puntu horretan hartu behar du aurrea, bere alegazioen eta aurkeztutako edo proposatutako proben bitartez.

Dena den, eta guri dagokigun kasuan, Murueta kluba ordezkatzeko duen letraduaren eginkizuna ezin da nahikotzat hartu, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen arabera, lehiaketako epaileek hartutako erabakiaren ustezko egiazkotasun-presuntzioa indargabetzeko, eta, beraz, azken hori nagusituko da.

Probako epaileek ez dute jarduketa egokia izan zenik frogatu, eta espedientean hainbat kontraesan hautematen dira, errekurtsogileak agerian utzi dituenak. Diziplina Epaile Bakarrak berak honako hau adierazi du bere txostenean: *«zalantzak izan ditzakegu horien artean beharrezko koordinazioarekin jardun ote zuten zehazteko orduan, aktaren idazketa batzuetan eskasa dela eta»*.

Edonola ere, gauza bat da epaileen eginkizunean nolabaiteko inkoherentzia egotea eta beste bat da horregatik gaiaren alderdi nagusia bistatik galtzea, zapatilek substantzia itsaskorra duten ala ez zehaztea. Gertakari objektiboa da, ikusi besterik egin behar ez dena.

Seguruenik, epaileek lehenago konturatu behar zuten horretaz, txapelketa abiarazi aurretik alegia, baina, berandu eta modu deskoordinatuan izan arren, substantzia hori existitzen zela eta erabilitako oinetakoetara



erantsita zegoela egiaztatu zen proba gauzatzen zen bitartean eta horretarako eskumena duen pertsonaren aldetik.

Kontuaren nabarmentasuna dela eta, neurritz kanpoko izango litzateke eta ez luke inolako zentzurik izango gai nagusiarekiko gehigarriak baino ez diren kontuei nagusitasuna ematea: Murueta, Beti Gazte eta Zuraide klubetako kirolarien zapatilak lehiaketan eragiten zuen substantzia batekin bustita zeuden. Gertakari hori mota guztietako balorazioetatik eta iritzietatik harantzago doa. Hala daude ala ez eta, epaileek nabarmendu duten moduan, indargabetu gabeko egiazkotasun-presuntziora jo behar dugu prozedura honetan.

Ez dugu zapatila horiek guztiak lurzoruaren gomarekin busti zitezkeela jasotzen duen aukeraren baloraziorik egingo, guztiz sinesgaitza baita, aldeztatik aurretik inork ez baitzuen horrelako ezer hauteman.

Eta gauza bera gertakarien burutzapenari dagokionez. Taldeek ezin dute txapelketan debekatutako materialekin parte hartu eta, hala eginez gero, legezko ondorioak aplikatu beharko dira. Errekurtsoan eskainitako bertsioaren arabera, arauen kontra hornitutako talde bati bigarren batean parte hartzeko eskatu beharko genioke, gero epaileak lehiaketa eten eta arau-haustea egin dela frogatzeko.

Zortzigarrena.- Kirol-oinetakoak faltsututa zeudela jasotzen duen premisan oinarrituz –epaileek proba-egunean «in situ» hautemandako eta espedientea izapidetzeko orduan berretsi zuten gertakari objektiboa–, haren ondorioak zehaztu behar dira, diziplina-araubideari dagokionez.

Zentzu horretan, eta diziplina-araubidean egindako akatsen sailkapena aztertu ostean, hemen aztertutako gertakariak hobeto txertatuko lirateke haren 7.2.h) artikuluan (jokalariek lehiaketaren emaitza alda dezaketen legezko



kontrako materiala erabiltzea), azkenean, inpugnatutako ebazpenak erabili zuena baino 11.2.a).

Dena den, artikulua bat edo bestea aplikatu, klubaren egoerari edo eremuari dagozkion ondorio juridikoak berdinak dira, arau batean nahiz bestean, lizentzia hilabete eta urtebete artean eteteko aukera jasotzen baita.

Aurrekari eta inguruabar larrigarriak hauteman ez denez, maila baxueneko zigorra ezartzea erabaki da.

Azken finean, ez dira federazioaren araudia eta legedia urratu, eta ez da akats edo arbitrariotasun nabarmenik hauteman, eta, beraz, ez dago txapelketako epaimahaiaren erabakia baliogabetzeko moduko arrazoirik. Muruetako Dinamixie Sokatira Kirol Klubak bere defentsa-eskubidea gauzatu ahal izan du, lehenik eta behin Euskadiko Herri Kirolen Euskal Federazioaren diziplina-organoaren aurrean eta, horren ostean, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

EBAZTEN DU

xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, Muruetako Dinamixie Sokatira Kirol Klubaren izenean eta ordezkari gisa, Euskadiko Herri Kiroletako Federazioaren Diziplina Epaille Bakarraren 2017ko martxoaren 8ko Ebazpenaren kontra jarritako errekurtsua **ezestea**.



Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 29a.

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea